



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2014ko abenduaren 23a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Angel del Hoyo Bravo, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- 478/2014 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez 11/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea onartzen da, kreditua txertatzeko modalitatean.



- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 12/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 13/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Oriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren idazketa finantzatzeari dagozkion urte anitzetako kredituak.
- 5.- Dagozkion erabakiak hartzea Oriko Antilla hondartzako 1 eta 3 zenbakidun eraikinak okupatzeko kontzesio administratiboari buruz.
- 6.- Dagozkion erabakiak hartzea uraren ziklo integralaren gestioari buruz.
- 7.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Oriko Errezabal-Munioeta bide publikoaren zati bat desafektatzea.
- 8.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Oriko salmenta ibiltaria erregulatzen duen udal ordenantzari.
- 9.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Oriko zirkulazioaren eta bide urbanoen erabileraren alderdi batzuk erregulatzen dituen udal ordenantzari.
- 10.- Onartzea, egoki bada, Oriko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren aurrerapena jendaurrean jartzea.
- 11.- Onartzea, egoki bada, Oriko 'Euskaraz bizi-bizi' plan estrategikoa (2014-2017).
- 12.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- 478/2014 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ 11/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEN DA, KREDITUA TXERTATZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 11/2014 espedientea kreditua txertatzeko modalitatean egina dago eta 13.407 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.



2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 12/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 12/2014 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 240.721 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko abenduaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 12/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 240.721 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.



3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 13/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 13/2014 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 20.582 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko abenduaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 13/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 20.582 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.



4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN IDAZKETA FINANTZATZEARI DAGOZKION URTE ANITZETAKO KREDITUAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko abenduaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren idazketa finantzatzeari dagozkion urte anitzetako ondoko kredituak:

- 20.509,50 euro, 2013ko ekitaldi ekonomikoaren kargura.
- 41.019,00 euro, 2014ko ekitaldi ekonomikoaren kargura.
- 61.528,50 euro, 2015eko ekitaldi ekonomikoaren kargura.
- 51.273,75 euro, 2016ko ekitaldi ekonomikoaren kargura.
- 30.764,25 euro, 2017ko ekitaldi ekonomikoaren kargura.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela koherente jokatzeko Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko lanen lehiaketa publikorako baldintza ekonomiko-administratiboak eta teknikoak onartzerakoan eman zuen kontrako botoarekin.

5.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 1 ETA 3 ZENBAKIDUN ERAIKINAK OKUPATZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2014ko abenduaren 22ko Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean diktaminatu da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko abenduaren 22an emandako diktamena



ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

1.- ONARTZEA Orioko Antilla hondartzako 1 zenbakidun eraikinerako (Gure Aitona jatetxea) 20.680 euroko (BEZik gabe) ustiaketa-kanona, 2014ko ekitaldi ekonomikotik aurrera eragina izango duena, Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko.

2.- ONARTZEA Orioko Antilla hondartzako 3 zenbakidun eraikinerako (Galerna jatetxea) 19.680 euroko (BEZik gabe) ustiaketa-kanona, 2014ko ekitaldi ekonomikotik aurrera eragina izango duena, Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko.

3.- ONARTZEA Orioko Antilla hondartzako 1 eta 3 zenbakidun eraikinetan Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko bete beharko diren baldintza berriak:

- Jendaurreko abisu eta oharrak lau hizkuntzatan eman beharko dira: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.
- Hondakinak gaika birziklatu beharko dira: papera, ontzi arinak, beira, organikoa eta olio.
- Komunek izaera publikoa izango dute eta horiek txukun eta egoki mantentzea adjudikaziodunaren kontura izango da.
- Uztailean eta abuztuan egunero irekiko da estableziemdua.
- Mantentze-klausula udal kanpineko taberna-supermerkaturako ezarritako bera izango da, eta eraikina urtero ikuskatuko da.
- Komunen erabilera publikoa oztopatzea oso arau-hauste larritzat hartuko da.

4.- BOST URTEZ LUZATZEA Orioko Antilla hondartzako 3 zenbakidun eraikina (Galerna jatetxea) okupatzeko 2011ko ekainaren 1ean sinatutako kontratu administratiboaren iraupena, behar bezala frogatuta geratu delako dagoeneko egin dela eraikin horretan baldintza gisa ezarri zitzaion 180.000 euroko gutxieneko inbertsioa. Hasiera batean kontratu administratiboak 10 urteko iraupena zuenez, oraingo luzapenarekin, indarrean izango da 2026ko ekainaren 1a arte

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, bere asmoa honako hau zelako: Orioko Antilla hondartzako 1 eta 3 zenbakidun eraikinak okupatzeko



kontzesio administratiboen titularrekin sinatuta dauden kontratu administratiboak bertan behera uztea eta lehiaketa publiko berria egitea, 2011n egin zen bezalaxe.

6.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA URAREN ZIKLO INTEGRALAREN GESTIOARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2014ko azaroaren 7ko Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzailean diktaminatu da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzaileak 2014ko azaroaren 7an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ZEHAZTEA 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ere Orioko Udala kide duen Gipuzkoako Ur Kontsортzioak emango duela, orain arte bezala, uraren ziklo integralaren gestioaren zerbitzua, Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SA sozietatearen bidez. Zerbitzu horrek barne hartzen ditu altako eta bajako sareak, hornidurakoak eta saneamendukoak, eta baita beharrezko inbertsio eta hobekuntzak egitea ere.

2.- ONARTZEA uraren ziklo integrala gestionatzeko sinatuko den elkarlan-hitzarmenaren testua eta, horren arabera, Gipuzkoako Ur Kontsортzioari delegatzea uraren eta zaborraren ziklo integralaren tasa eta prezioak gestionatu, likidatu eta biltzeko ahalmenak. Nabarmentzekoa da elkarlan-hitzarmenaren 3. klausulan ezarritakoa, alegia, Orioko Udalak onartu egiten duela Gipuzkoako Ur Kontsортzioak aurkeztutako azterketa ekonomikoa, hitzarmenari erantsita doana, non adierazten den datozen 10 urteotan Gipuzkoako Ur Kontsортzioak 350.582 euro (%21eko BEZa barne) emango dizkiola Orioko Udalari eta 687.371 euro (%21eko BEZa barne) inbertituko dituela.

3.- AHALMENA EMATEA Orioko alkateari Gipuzkoako Ur Kontsортzioarekin elkarlan-hitzarmena sina dezan, uraren ziklo integrala gestionatzeko.

7.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ERREZABAL-MUNIOETA BIDE PUBLIKOAREN ZATI BAT DESAFEKTATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak, 2014ko otsailaren 17an egindako ezohiko bilkuran, erabaki zuen, batetik, lehen onarpena ematea Orioko Errezabal-Muinioeta bide publikoaren zati bat



desafektatzeari eta, bestetik, espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, interesatuek aukera izan zezaten erreklamazio eta sujerentziak aurkezteko.

Erabakia jendaurrean jartzeko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2014ko otsailaren 24an (36. zenbakian) eta, beraz, jendaurreko epea 2014-02-25ean hasi eta 2014-03-25ean amaitu zen.

Jendaurreko epean alegazio bakarra aurkeztu zen: Maria Jose San Sebastian Aranburuk eskatu zuen desafektatu beharreko Orioko Errezabal-Munioeta bide publikoaren zatia handiagoa izatea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, udal arkitektoak 2014ko apirilaren 23ko txostenaren bidez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ATZERA BOTATZEA Maria Jose San Sebastian Aranburuk aurkeztutako alegazioa, udal arkitektoaren 2014ko apirilaren 23ko txostenean azaldutako arrazoiengatik.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA Orioko Errezabal-Munioeta bide publikoaren zati bat desafektatzea, udalbatzarrak 2014ko otsailaren 17an egindako ezohiko bilkuran hartutako lehen onarpeneko erabakiaren termino beretan.

3.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko **AGINDUA EMATEA**, dagozkion lege-errekurtsoak adieraziz.

8.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO SALMENTA IBILTARIA ERREGULATZEN DUEN UDAL ORDENANTZARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gizarte Ongizate, Enplegu eta Merkataritza batzorde informatzaileak 2014ko abenduaren 11n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko salmenta ibiltaria erregulatzen duen udal ordenantzari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA udal ordenantza hori, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogoita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal ordenantza hori



interesatuen eskura izango da udal idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal ordenantza, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

9.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO ZIRKULAZIOAREN ETA BIDE URBANOEN ERABILERAREN ALDERDI BATZUK ERREGULATZEN DITUEN UDAL ORDENANTZARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzaileak 2014ko abenduaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko zirkulazioaren eta bide urbanoen erabileraren alderdi batzuk erregulatzen dituen udal ordenantzari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA udal ordenantza hori, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal ordenantza hori interesatuen eskura izango da udal idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal ordenantza, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN AURRERAPENA JENDAURREAN JARTZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzaileak 2014ko abenduaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

JENDAURREAN JARTZEA hiru hilabeteko epean Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapenaren dokumentua, udalbatzarrek, elkarteek eta partikularrek aukera izan dezaten iradokizunak edota planeamendu-alternatibak aurkezteko. Dokumentua jendaurrean jartzeko, iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari



Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan eta probintziako hedapen handieneko egunkarietako batean.

Dokumentuak interesatu guztien esku izango dira udal bulego teknikoan eta www.orio.eus webgunean.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak aldeko botoa eman duela, prozesu parte-hartzaile bat bultzatzearen alde daudelako.

11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO 'EUSKARAZ BIZI-BIZI' PLAN ESTRATEGIKOA (2014-2017).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udaleko Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzordeak 'Euskaraz bizi-bizi' plan estrategikoa onartzearen aldeko diktamina eman zuen, besteak beste, 2014ko azaroaren 20an egindako bilkuran.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzaileak 2014ko azaroaren 20an emandako diktamina ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko 'Euskaraz bizi-bizi' plan estrategikoa (2014-2017), Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzaileak diktaminatutako terminotan.

12.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin..

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,